



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal

DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEA

EIBARKO UDALERRIAN HIRI-HONDAKINAK BILDU ETA TRATATZEKO ZERBITZUAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALAREN, 2022ko EKITALDIA

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Toki Erakunde honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauarekin bat etorritik, zaborraren etxeko, merkataritzako eta industriako bilketa-zerbitzu publikoa emateagatiko eta hiri-hondakin solidoen tratamendu eta aprobetxamendu edo ezabatzeagatiko eta zerbitzu horri lotuta dauden gainerako jarduerengatiko tasa ezartzen eta eskatzen du; zerbitzu hori Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak eta bere kudeaketa-sozietateak, BADESA, SAUK, ematen dute, eta eranskinean bilduta dago, Ordenantza honen terminoetan, eta haiek horren zati dira.

2. artikulua

Eibarko udalerriko lurralde-eremu osoan aplikatzen da ordenantza.

II. Zergapeko egitatea

3. artikulua

Tasaren zergapeko egitatea da etxeetako zaborra eta etxebizitza, ostatu eta industria, merkataritza, lanbide, arte edo zerbitzu jarduerak egiten dituzten lokal edo establezimenduetako hiri hondakinak nahitaez hartu eta biltzeko zerbitzua, eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak egingo duen hondakinen ondorengo tratamendua. Zerbitzuaren ezarpena nahitaezkoa eta orokorra da, zabor-bilketaren ibilbideko bi aldeetan erradialki neurtutako 250 metrora arteko etxebizitza, lokal, establezimendu eta jardueren titularrek erabiltzen dutela ulertuz.

III. Subjektu pasiboa

4. artikulua

Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 35. eta 36. artikuluan aipatzen dituen entitateak zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jastotzen dutenean. Zehazki, zabor-bilketa zerbitzuak egiten duen ibilbideko bi aldeetan erradialki neurtutako 250 metrora arte kokatuta dauden etxebizitza, lokal, establezimendu eta jardueren edozein tituluren bidez jabe diren edo okupatzen edo erabiltzen dituzten pertsoneri aplikatzen zaie.

- a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasak dira: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

5. artikulua

Tasak ordaintzera behartuta daude:

MANCOMUNIDAD COMARCAL DE DEBABARRENA

ORDENANZA FISCAL, REGULADORA DE LAS TASAS POR LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS DE RECOGIDA Y TRATAMIENTO DE RESIDUOS URBANOS, EN EL MUNICIPIO DE EIBAR, EJERCICIO 2022

I. Disposiciones generales

Artículo 1

Esta Entidad Local, de acuerdo con la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, establece y exige la tasa por la prestación del servicio público de recogida domiciliaria, comercial e industrial de basura y el tratamiento y aprovechamiento o eliminación de residuos sólidos urbanos y demás actividades relacionadas con dicho servicio, que es prestado por la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena y su sociedad de gestión, BADESA, SAU, que se recoge en el Anexo, en los términos de la presente Ordenanza, de las que aquellas son parte integrante.

Artículo 2

La Ordenanza se aplica en todo el ámbito territorial del municipio de Eibar.

II. Hecho imponible

Artículo 3

Constituye el hecho imponible, la efectiva prestación del servicio de recepción obligatoria, de recogida de basuras domiciliarias, de residuos urbanos de viviendas y locales o establecimientos donde se ejercen actividades industriales, comerciales, profesionales, artísticas o de servicios, y el posterior tratamiento de los residuos, por la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena. La implantación del servicio tiene la condición de obligatorio y general, entendiéndose utilizado por los/as titulares de viviendas, locales, establecimientos y actividades hasta 250 metros a ambos lados del recorrido de recogida de basura, medido con carácter radial.

III. Sujeto pasivo

Artículo 4

Son sujetos pasivos, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere los artículos 35 y 36 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que resulten beneficiadas o afectadas por el servicio. Concretamente la tasa recae sobre las personas que posean, ocupen o utilicen por cualquier título, de viviendas, locales, establecimientos y actividades hasta 250 metros a ambos lados del recorrido de recogida de basura, medido con carácter radial.

- a) Son tasas establecidas por razón de servicios o actividades que beneficien o afecten a los/as ocupantes de viviendas o locales, los/as propietarios/as de dichos inmuebles y comunidades de propietarios/as o locales afectados, quienes podrán repercutir, en su caso, las cuotas sobre los/as respectivos/as beneficiarios/as.

Artículo 5

Están obligados/as al pago de las Tasas:



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal

Zergaduna tasak ordaintzera behartuta dago zordun nagusi gisa. Tasaren likidazioa egin zaion eta bideratu zaion zergadunak ordaindu beharko du tributu-zorra.

6. artikulua

Ordenantza honetatik eratorzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

IV. Salbuespenak, murrizpenak eta hobariak

7. artikulua

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen okorrotan ezarritakoaren arabera emango dira.

1. Tarifaren zenbatekoaren % 100eko hobaria jasoko dute Eibarko udalaren, erakunde autonomoen edota Eibarko udalak osorik partaidetutako sozietateen jabetzakoak diren ondasunek, udal-mugarte honetan kokatuta badaude.
2. Era berean, tarifaren zenbatekoaren % 100eko hobaria jasoko dute Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen eta BADESA, SAU bere sozietate publikoaren jabetzakoak diren ondasunek, Eibarko udal-mugartean kokatuta badaude.

Bi kasuetan, hobaria aplikatu ahal izateko, ondasunek erabilera edo zerbitzu publikora atxikita egon beharko dute.

3. Zaborraren tasarako hobaria % 100ekoa izatea, ekitaldian zehar sor daitezkeen edo tasa sortu aurreko 24 hilabeteetan eratu diren enpresentzat, baldin eta 5 langiletik behera badituzte. Adierazitako epea igaro ondoren, ez da hobaria jasotzeko eskubiderik izango. Salbuespenak ordenantzaren eranskineko 5. epigrafean industria jardueratzat hartzen diren enpresei eragingo die.

V. Zerga-oinarria

8. artikulua

Zerga-oinarria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du. Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. Kouta

9. artikulua

Tributu-kouta, Eranskinean ezarrita dagoenaren arabera, horretarako adierazitako kopuru finko bat lokal-unitate bakoitzari aplikatuzetik eratorzen den kopurua izango da; lokal-unitate bakoitza, higiezinaren izaera eta destinoaren, higiezinaren edo lokalean garatzen diren eta eranskinean zehazten diren erabilera edo jardueren arabera zehaztuko da.

Kontuan izanik aipatu tasen zergapeko egitatea nahitaez hartu beharreko zerbitzuaren erabilgarritasuna eta/edo erabilera dela, urtean zehar zerbitzua bertan behera uzten duten subjektu pasiboentzat azken likidazio-aldiari dagozkion kouta finkoak uzte hori gertatu den hiru hilabete naturala osorik kontuan izanik kalkulatuko dira.

VII. Sortzapena eta zergaldia

10. artikulua

Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

El/La contribuyente resulta obligado/a al pago de las tasas como deudor principal. La deuda tributaria deberá ser satisfecha por el/la contribuyente a quien se le haya practicado y dirigido la liquidación de la tasa.

Artículo 6

Junto al sujeto pasivo, responden de las deudas tributarias que se deriven de esta Ordenanza, las personas que, en su caso, se mencionen en las normas de aplicación de las Tarifas.

IV. Exenciones, reducciones y bonificaciones

Artículo 7

La concesión de exenciones u otros beneficios fiscales, se sujetará a lo que se establezca en las disposiciones generales de aplicación.

1. Se bonifican con el 100 % del importe de la tarifa, los bienes que sean propiedad del ayuntamiento de Eibar, organismos autónomos o de sus sociedades íntegramente participadas por el ayuntamiento de Eibar, ubicados en este término municipal.
2. Asimismo, estarán bonificados con el 100 % del importe de la tarifa, los bienes propiedad de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena y de su sociedad pública, BADESA, SAU, enclavados en el término municipal de Eibar.

En ambos casos, para que la bonificación sea aplicable, los bienes deberán estar afectos al uso o servicio público.

3. Se bonifica al 100 % la tasa de basura para aquellas empresas que puedan ser creadas en el ejercicio o que lo hayan sido a lo largo de los 24 meses anteriores al devengo de la tasa, y que su plantilla sea menor a 5 empleados/as. No habrá derecho a la bonificación, una vez transcurrido el plazo señalado. La exención afectará a las empresas consideradas como actividades industriales en el epígrafe 5 del Anexo de la ordenanza.

V. Base imponible

Artículo 8

Constituye la base imponible, cada una de las unidades en que se materialice el servicio, en los términos contenidos en el Anexo.

VI. Cuota

Artículo 9

La cuota tributaria consistirá, conforme a lo establecido en el Anexo, en la cantidad resultante de aplicar una cantidad fija señalada al efecto, por unidad de local que se determinará, en función de la naturaleza y destino de los inmuebles, de los usos o de las actividades que se desarrollen en el inmueble o local que se especifican en el anexo.

Teniendo en cuenta que el hecho imponible de las tasas referidas, es la disponibilidad y/o el uso del servicio de recepción obligatoria, para aquellos sujetos pasivos que cesen en el servicio a lo largo del año, las cuotas fijas correspondientes al último período de liquidación, se calcularán teniendo en cuenta, en su integridad, el trimestre natural en que se haya tenido lugar el cese.

VII. Devengo y período impositivo

Artículo 10

La tasa se devenga cuando se realiza el servicio o actividad.



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal

VIII. Likidazioa eta ordainketa

11. artikulua

Toki Administrazioak kontzeptu bakoitzaren hiruhilekoko likidazioa egingo du, Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. Tasen kudeaketa

12. artikulua

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. Birziklatzearen xedeak

13. artikulua

Aplikazio-araudiari jarraikiz eta Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorren Aurrerapen Agiria (2008-2016) onartzen duen abenduaren 23ko 7/2008 Foru Arauan ezarritako helburuak betetze aldera, birziklatzea eta hondakinak bereiztea nahitaezkoa dela ezartzen da, eta zerbitzuaren erabiltzaileek nahitaez hondakin mota bakoitzari dagokion edukiontzia erabili beharko dute.

Betebehar hori ez betetzea bilketa-zerbitzua arautzen duen ordenantzan arau-hauste gisa tipifikatuko da.

XI. Amaierako xedapena

Ordenantza hau onartzeko erabakia Batzar Orokorrek 2015eko urriaren 1ean hartu zuen.

Ordenantza eta bere eranskinak 2022ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean, edo Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean, data hori ondorengo izango balitz, eta indarrean jarraituko du indargabetzea edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.

VIII. Liquidación e ingreso

Artículo 11

Por la Administración Local, se practicará la liquidación trimestral que proceda por cada concepto, conforme a las normas particulares de cada exacción contenidas en el Anexo.

IX. Gestión de la tasa

Artículo 12

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de las Tasas reguladas por esta Ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan, en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

X. Objetivos de reciclaje

Artículo 13

De conformidad con la normativa de aplicación y en aras a cumplir con los objetivos de reciclaje establecidos en la NF 7/2008, de 23 de diciembre, por la que se aprueba el Documento de Progreso (2008 – 2016) del Plan Integral de Residuos Urbanos de Gipuzkoa 2002 – 2016, se establece la obligatoriedad del reciclaje y la separación de residuos, debiendo los/as usuarios/as del servicio, con carácter obligatorio, utilizar los contenedores que por fracción de residuos corresponda, por cada tipo de residuos.

El incumplimiento de dicha obligación se tipificará como infracción en la correspondiente ordenanza reguladora del servicio de recogida.

XI. Disposición final

El acuerdo de aprobación de esta Ordenanza fue tomado por la Junta General, el día 1 de octubre de 2015.

La presente Ordenanza y sus Anexos, entrarán en vigor el día 1 de enero de 2022, o el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, si la fecha fuera posterior, y se mantendrá en vigor mientras no se acuerde su derogación o modificación.

I. ERANSKINA

ANEXO I

Hiruhilekoa		Trimestre	
1. Lokalak, jarduerarik gabe:	52,95	1. Locales, sin actividad:	52,95
2. Etxebizitzak, bizileku partikularrak:	43,60	2. Viviendas, domicilios particulares:	43,60
3. Ostalaritza (tabernak, kafetegiak, jatetxeak eta antzekoak), elikadura-produktuen eta edarien merkataritza (gozotegiak, gozoki-dendak, ultramarinoak, arrandegiak, harategiak, okindegiak eta antzekoak), alojamendu-zerbitzuak.		3. Hostelería (bares, cafeterías, restaurantes y similares), comercio de productos alimenticios y bebidas (pastelerías, caramelerías, ultramarinos, pescaderías, carnicerías, panaderías y similares), servicios de alojamiento.	
⇒ 5 langile arte	218,21	⇒ Hasta 5 empleados	218,21
⇒ 5 langile baino gehiago	394,23	⇒ Más de 5 empleados	394,23
⇒ 15 langile baino gehiago	550,12	⇒ Más de 15 empleados	550,12
4. Biltegiak, bulegoak, luxuzko erabilerako, etxearen egokitzapeneko eta kontsumoko artikuluen saltokiak, lanbide-jardueren lokalak eta, oro har, tarifa honen gainerako epigrafeetan bilduta ez dauden gainerako lokal komertzial eta profesional guztiak:		4. Almacenes, oficinas, comercios de artículos de uso suntuario, de acondicionamiento del hogar, de consumo, locales de actividades profesionales y, en general, todo tipo de locales comerciales y profesionales no incluidos en el resto de los epígrafes de esta tarifa:	
⇒ 5 langile arte	149,43	⇒ Hasta 5 empleados	149,43



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal

I. ERANSKINA

ANEXO I

Hiruhilekoa		Trimestre	
⇒ 5 eta 15 langile bitartean	297,47	⇒ De 5 a 15 empleados	297,47
⇒ 15 langile baino gehiago	441,29	⇒ Más de 15 empleados	441,29
5. Industria-jarduerak (ekonomia-jardueren gaineko zergaren 1. dibisiotik 4. dibisiora):		5. Actividades industriales (divisiones 1 a 4 del IAE):	
⇒ 5 langile arte	245,56	⇒ Hasta 5 empleados	245,56
⇒ 5 eta 15 langile bitartean	428,78	⇒ De 5 a 15 empleados	428,78
⇒ 15 langile baino gehiago	582,61	⇒ Más de 15 empleados	582,61
6. Klinikak, ospitaleak, eta ambulatorioak	904,57	6. Clínicas, hospitales, dispensarios	904,57

Tarifa aplikatzeko arauak

- Zerbitzuaren izaera osasun aldekoa eta higienikoa denez, zerga hori aplikatzea ezinbestekoa da, eta ez da inor, pertsona fisikoa zein juridikoa izan, ordaindu gabe garatuko.
- Zerbitzuaren erabiltzailetzat honako hauek hartuko dira: zabor-bilketaren ibilbideko bi aldeetan erradialki neurtutako 250 metrora arteko etxebizitza eta lokalen titularrak (Ordenantzaren 3. artikulua).
- Fakturazioa hiru hilabetero egingo da eta hiru hilabeteroko kuota hori murrizteza izango da.
- Fakturazioa, urarenarekin eta estolderiarekin batera egingo da.
- Bezeroak, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA – GIPUZKOAKO URAK-ri, altak, bajak eta zerbitzuaren titularitate aldaketak derrigorrez jakinarazi behar dizkio.
“GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA – GIPUZKOAKO URAK” kontsortzioari jakinarazitako datatik aurrera altak edo aldaketak baldin badaude, alta-dataren hiruhilekoari dagokion tarifa bidaliko zaie.
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA – GIPUZKOAKO URAKI jakinarazitako hiruhilekoaren hurrengo hiruhilekotik aurrera izango dute eragina bajak.
“GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA – GIPUZKOAKO URAK” kontsortzioari aldi berean jakinarazten zaizkion titulartasun-aldaketetan, hiruhilekoko tarifa tasaren bi titularrei bidaliko zaie proportzionalki.
Jarduera ekonomikoaren helbide-aldaketen kasuan, hiruhileko berdinean egiten direnean, tasa bakarria sortuko da.

Zabor-bilketaren tasaren errolda ofiziosz berrikusten denean, sortzen diren aldaketek berrikuspena egin den eta aldaketa sartu den hiruhilekoan bertan izango dute eragina eta hiruhileko horretan aplikatuko da dagokion tarifa.
- Garaje huts diren lokalek ez dituzte tasa horiek ordainduko beharrik, vaina udal baimena derrigorrezkoa dute.

Normas de aplicación de la tarifa

- Por el carácter higiénico-sanitario del servicio, es obligatoria la aplicación de esta tasa y ninguna persona física o jurídica quedará eximida del pago de la exacción.
- El servicio se entenderá utilizado por los/as titulares de viviendas y locales existentes, hasta 250 metros a ambos lados del recorrido de recogida de basura, medido con carácter radial (Art. 3 Ordenanza).
- La facturación se realizará trimestralmente, teniendo dicha cuota trimestral el carácter de irreducible.
- La facturación se realizará junto con los conceptos de agua y alcantarillado.
- El/La usuario/a está obligado a notificar a “GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA – GIPUZKOAKO URAK”, las altas, bajas y cambios de titularidad en el servicio.
En los supuestos de altas y modificaciones desde la fecha de su notificación a “GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA – GIPUZKOAKO URAK”, se les girará la tarifa correspondiente al trimestre de la fecha de alta.
Las bajas surtirán efecto, a partir del trimestre siguiente al de la comunicación a GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA – GIPUZKOAKO URAK.
En los cambios de titularidad, que de forma simultánea se notifiquen a “GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA – GIPUZKOAKO URAK”, la tarifa trimestral se girará de forma proporcional a los/as dos titulares de la tasa.
Los cambios de dirección de la actividad económica, cuando se realicen en el mismo trimestre, se devengará una única tasa.
En el caso de las revisiones de oficio del padrón de la tasa de basura, las modificaciones que se produzcan, surtirán efecto y se aplicará la tarifa que corresponda en el mismo trimestre en el que se efectúa la revisión, y modificación de la misma.
- No están sujetos al pago de esta tasa, los locales destinados exclusivamente a garajes, siempre y cuando cuenten con la preceptiva autorización municipal.

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEA

Eibarko udalerrian hiri-hondakinak biltzeko zerbitzu publikoa (2023ko ekitaldia) emateagatikoko tasa behin betiko onartzea.

Jendaurrean jartzeko epea igaro da, eta ez da alegaziorik aurkeztu Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko Batzar Nagusiak 2022ko irailaren 28an hartutako erabakiari buruz. Erabaki hori Eibarren 2023ko ekitaldian hiri-hondakinen zerbitzua emateagatikoko tasa onartzeari buruzkoa da, eta ez dituzte 2022ko tarifak aldatzen. Beraz, aldatzeko erabaki hori behin betiko bihurtu da.

2023an aplikatu beharreko tasak honako hauek dira:

I. ERANSKINA

	<u>Hiruhilekoa (€)</u>
1. Lokalak, jarduerarik gabe	52,95
2. Etxebizitzak, bizileku partikularrak	43,60
3. Ostalaritza (tabernak, kafetegiak, jatetxeak eta antzekoak), elikadura-produktuen eta edarien merkataritza (gozotegiak, gozoki-dendak, ultramarinoak, arrandegiak, harategiak, okindegiak eta antzekoak), alojamendu-zerbitzuak.	
– 5 langile arte	218,21
– 5 langile baino gehiago	394,23
– 15 langile baino gehiago	550,12
4. Biltegiak, bulegoak, luxuzko erabilerako, etxearen egokitzapeneko eta kontsumoko artikuluen saltokiak, lanbide-jardueren lokalak eta, oro har, tarifa honen gainerako epigrafeetan bilduta ez dauden gainerako lokal komertzial eta profesional guztiak.	
– 5 langile arte	149,43
– 5 eta 15 langile bitartean	297,47
– 15 langile baino gehiago	441,29
5. Industria-jarduerak (ekonomia-jardueren gaineko zergaren 1. dibisiotik 4. dibisiora).	
– 5 langile arte	245,56
– 5 eta 15 langile bitartean	428,78
– 15 langile baino gehiago	582,61
6. Klinikak, ospitaleak, eta anbulatorioak	904,57
Eibar, 2022ko azaroaren 22a.—Iosu Arraiz Aramburu, presidentea.	(7338)

MANCOMUNIDAD COMARCAL DE DEBABARRENA

Aprobación definitiva de Tasa por la prestación del servicio público de recogida de R.U. en el municipio de Eibar, ejercicio 2023.

Transcurrido el plazo de información pública, no se ha presentado alegación alguna al acuerdo adoptado por la Junta General de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, en sesión celebrada el día 28 de septiembre de 2022, sobre aprobación de la tasa por la prestación del servicio de R.U. en el municipio de Eibar, ejercicio 2023, que no modifican las tarifas de 2022; por lo que dicho acuerdo de modificación, adquiere la condición de definitivo.

Las tasas aplicables en 2023, son las siguientes:

ANEXO I

	<u>Trimestre (€)</u>
1. Locales, sin actividad	52,95
2. Viviendas, domicilios particulares	43,60
3. Hostelería (bares, cafeterías, restaurantes y similares), comercio de productos alimenticios y bebidas (pastelerías, caramelerías, ultramarinos, pescaderías, carnicerías, panaderías y similares), servicios de alojamiento.	
– Hasta 5 empleados	218,21
– Más de 5 empleados	394,23
– Más de 15 empleados	550,12
4. Almacenes, oficinas, comercios de artículos de uso suntuario, de acondicionamiento del hogar, de consumo, locales de actividades profesionales y, en general, todo tipo de locales comerciales y profesionales no incluidos en el resto de los epígrafes de esta tarifa.	
– Hasta 5 empleados	149,43
– De 5 a 15 empleados	297,47
– Más de 15 empleados	441,29
5. Actividades industriales (divisiones 1 a 4 del IAE).	
– Hasta 5 empleados	245,56
– De 5 a 15 empleados	428,78
– Más de 15 empleados	582,61
6. Clínicas, hospitales, dispensarios	904,57
Eibar, a 22 de noviembre de 2022.—El presidente, Iosu Arraiz Aramburu.	(7338)